

PAISAIA-IKUSPEGIA ETA HAREN LAU DIMENTSIOAK

Maider Uriarte Idiazabal
UEU eta UPV/EHU, 289 or.
Bilbo, 2017

«Paisaia-ikuspegiaren barneko lau dimentsioak: Ideia, Irudikapena, Agentzia eta Elementuak. Ideiak oinarri geografikoaren ulermena adierazten du; Irudikapenak ulermen hori adierazten du; Agentziak Irudikapenaren eta Ideiaren alderdi soziala, egileak eta sustatzaileak identifikatzen ditu, eta Elementuek paisaiaren eraikuntza-elementuak aztertzen dituzte [...]. Labur esanda, paisaia-ikuspegia tresnak paisaiaren eraikuntza soziokulturalaren lau alderdi nagusi biltzen ditu, interpretatzeko baliagarria den tresna bakarrean. Ikuspegi konstruktibistatik egin diren paisaiaren inguruko beste ikerketa batzuen ekarpenak oinarri hartuta, paisaiaren egiletza, ideologia, irudikapena eta eraikuntza fisikoa elkarren artean lotuta aztertzen dira hemen».

M. Uriarte¹

Aztergai dugun liburuak honako bigarren mailako izenburu oparo baizen luze hau darama azpтитulu lez: *Metodo interpretatzaile konstruktibista baten proposamena, Bilboaldeko hiri-bazterreko paisaia menditsuen kasuan aplikatua*. Izan ere, darabilgun «konstruktibismoa» hemen ez da izango XX. mendearen hasierako Abangoardia historikoetatik eratorritako joera estetiko plastikoa, beste erronka batzuk izango baitira planteatuko dizkigunak. Era berean, Maider Uriartek liburu honen aurrekaria den bere doktorego-tesian aipatzen dituen inguruneak nola-halako «ez-paisaiak» balira legez interpreta genitzake hein handian. Hala nola *non-lieux* edota *non-site* izendaturiko «ez-paisaiok» —kako artean bada ere— euren ukazioz adierazten dute, hain zuzen, kultur interpretazioen arabera dagokien izaera «sasi-paisajistikoa». M. Uriartek Bilbo «hiri handiko» aldirietan dirauten gunek erakusten dizkigu; lausoak, barreiatuak, agian abandonatuak edo erortzen utziak, ustez balio gutxikoak, birgaitu beharrekoak, ohiko jarduera gaurkotuetatik amilduak izan ohi direnak. Hiri-nukleoetatik, erdigune urbano berrien loralditik erpinetara erbesteratuak, eraberritze-plangintza anitzen mahaietako paper piloek zoko azpiratuetan dirautenak eta beren aukera «estrategiko»aren zain leudekeenak, monitorizatutako hiri-proiektu ponposo bezain hauskorren barruan. Hirietako ertz horiek sarritan itzalitako produkzio moduen oihartzunak pizten dizkigute oroimenean, baina era berean gaur eguneko hirien irudi «txukunak» hautsiz, memoriak lainotzen uzten dizkigute...

1. Uriarte, M. (2017): *Paisaia-ikuspegia eta haren lau dimentsioak. Metodo interpretatzaile konstruktibista baten proposamena, Bilboaldeko hiri-bazterreko paisaia menditsuen kasuan aplikatua*, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) eta Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Bilbo, 173. eta 35. or. (guztira: 220 or.).

Honetan ere, konstruktibismoaren adiera aldakorrek in gogora ekarri nahi izan dugun gisan, zona hauek ez lukete izango *non-site* kategoriaren esanahi berbera, ezta *non-lieux* ere; zerbaiten gabezia baleude bezala atzemango ditugu maiz. Lekuok eta tokiok (nahiz eta lerro hauetan «leku»/«toki» kontzeptuen diferentzian ez garen sartuko, huraxe balego ere) osatugabeak irudikatzen ditugu adimenean, beharbada kasik inortxok ere ez dielako hausnarketa sakonik bideratzen, eta «faltan» botatzen dugun horixe baita Uriartek zehaztasunez xahutu gura diguna; interpretazioz, «estrategia erreflexiboak» bitarteko hiru pauso nagusiri darraion metodoarekin:

Hasteko, aurrekari bibliografikoen berrikuspenaren bitartez interpretaziorako testuinguru teorikoa osatu da, eta hiri-bazterreko paisaiaren izaera teorikoa ere ezarri. Ondoren, proposatutako interpretaziorako paisaia-ikuspegia tresna aplikatu da. Aplikazio horrek bi pauso edo eszena ditu: landa-lana eta artxibo-lana, alegia. Horrela, hastapeneko paisaia-izaeraren formulazio espekulatibo bat osatu da begi-bistakoak diren lurralde-elementuak oinarri hartuta, eta, segidan, formulazio hori sakonago aztertu da agirieta dokumentuak erabiliz. Hortaz, emaitzak bi motatakoak dira: lehenengo paisaiaren ulkerera sortzaile gisa aintzat har daitekeen berreraikuntza bat, eta bigarren paisaiaren bilakaera ulertzeko, baita hura kudeatzeko ere, egitura ikusezinak, joerak eta aukerak identifikatu dira, nolabait lehenengo paisaia-karakterizazioaren osagarri direnak [...]. Eremu degradatu bat fenomenologikoki ulertzerakoan oztopoak topatzen dira ezaugarri horiekin arkitektura edo diseinu erakargarri bat osatu ahal izateko (Uriarte, 2017: 9, 11).



1. irudia. *Paisaia-ikuspegia eta haren lau dimentsioak*, argitalpenaren azala.

Sintesi erako laburpen honetan metodologiaren, abiapuntu teorikoen eta aurreikusitako emaitzei dagozkien gako-hitz guztiak eta norabidearen klabe denak agertzen zaizkigu orotara, aparteko era abilean eta errazean emanak, nahiz eta askotan, irakurketa fenomenologikoak egiteko gelditzen den «toki-espazioa» urria den. Goiko pasartean Uriartek diharduen harian, eraikitako lurraldearen gain esku hartzeak eta horren kudeaketak ez du «hiria» terminoarekin ezagutzen dugun zentraltasunean bakarrik eragiten, baizik eta hiri-bazterretan ere; hotz,

fenomenologikoki kalifikatzeko zailak diren eremuen antolaketa eta «diseinuan». Abiapuntua eta neurri batean helburua ere hori litzateke, «hiri-bazterreko paisaiaren izaera ulertzeko metodo bat diseinatzea» (Uriarte, 2017: 13). Modu horrek, alabaina, bere ezaugarri pizgarriak litzuzke:

Analisia, gainera, lurraldeko elementu eraikien arteko balio-diskriminaziorik ezarri gabe egin beharko litzateke; hots, orokorrean atseginak eta desatseginak diren elementu eraikien artean bereizketarik egin gabe. [...] Paisaia arketipiko ezagunenen eragina saihestu beharko litzateke, balioetsua eta esanguratsua denaren kontsiderazioari dagozkionez ahal bezain ikuspegi barneratzailea bilatu ahal izateko. Horrek esan nahi du analisia egiterakoan aurrez tokiaren bokazioa edo estetika kalitatea ezarri gabe bideratu beharko litzatekeela (Uriarte, 2017: 13).

Premisa finko horiek postura objektibo zein subjektiboaren arteko limiteetan uzten gaituzte, ikertzailearen senak bitartekaritza hori moldatu eta modelatu beharko duela paisaiaren alderdi material eta kontzeptualak interpretazioz ulertzen direnean. Horretarako, makina bat txangotan bildutako materiala landa-lanaren euskarri baliagarrienetakoa izan dela onartzen du Uriartek.

Zapore gazi-gezaren meandro uhintsuetatik mendi-magaletaraino

Arrakalaz jositako ezpain mamitsu/menditsuen tartetik doan ura da Bilboko itsasadarra. Bizkarrezur horrek zipriztindutako lurak lirakeke periferietan garaturiko lur bustiak. Handik gora mendi-magalak eta horietan Uriartek hainbeste maite edo sikiera estimatzen dituen «paisaiak».

Mareen eraginpeko ibaiaren ur gaziak oraindik ere geza izaten jarraitzen duen lurzoru altuetako errekaetara, kultur eraikuntza paisajistikoaren identifikagarri franko ikusaraziko dizkigute euren ustezko «izaera-gabetasunari» nahiz oroimen «mehe» apurkorrari gaindi eginez. Bitarte horietan paisaia-eredu desberdinen existentzia bermatzen da, horren funtsa soziokulturalaz gain geografikoa ere badela kontu eginez, tokian tokiko topografiak eta jatorrizko elementuek baldintzaturikoa; bere horretan izaera zein egitura multifuntzionala duena eta balio-sisteman murgildua bere agerkari soziokulturalak sortzen/egokitzen dituena.

Besteak beste eta ikerlan honi dagokionez, Uriartek mendi-paisaiaren eraikuntza batez ere azken mende modernoetako historian nola eraldatuz joan den irakurri eta interpretatu du, paraje «beldurgarri» batetik «erakargarria» eta «ederra» izateraino bestelako ondorio kultural sorta atxiki zaionean; osasuntsua izatearena, interes zientifiko eta arreta bereziduna, aire lixibatua arnasteko kutsadura baxukoa. Horren ezkutuan edota zeharka beste kategoria «estetiko» batzuk ere badaudela konturatzeko gara, bidenabar, bere horretan erabiliak ez izan arren; modernitatearen hastapenetan sublimea suertatzen zen «naturak» izua eta plazera baimentzen zituen aldi berean, ondoezaren eta lasaitasunaren arteko kontrastuarekin, zorabioa eta bakea. Ezinegonetik eratorritako katarsiak gerora ere beste elementu eta ikuspuntu asko aztoratu bai baina zentratu ere egin dituela ziurtatuko genuke. Horrek guztiak berariazko «enpatia» berritu bat sorrarazten du «paisaia» horiekiko, irudikapen eraberrituak ere behar izango dituena; azken finean, askotariko esanahiak

dituen egitura eta heterogeneotasuna onartzea posible egiten duena. Hortaz, analisi diskurtsiboan osagarri, aspektu ikonografiko eta ikonologikoek garrantzi erabakigarria izango dute interpretazio-teknikaren gorpuzkeran.

Uriarteren esanetan eta perspektiba konstruktibistaren betaurrekoen, gizarte-talde edo sektore konkritu batzuek lurraldeaz ohartzeko, berarekin erlazioak abiarazteko eta harreman-katea osatzeko duten abilezian datza paisaiaren kontzeptu aldakorra, denboraren poderioz transformazio-prozesu ikaragarrietan murgildua. Gizartea-lurra harremanak ere ezein motatakoak izan daitezke, baina orotan interaktiboak direnak eta pertzepzio eraldagarriak dituztenak:

Paisaia eraikitzeke modu anitz horietako bakoitzari paisaia-ikuspegia esan zaio ikerketan. Bakoitzak aldagai sozialak, kulturalak, espazialak, eta irudikapenezkoak hartu ditu aintzat. Edozein lurraldek jasan dituen eraldaketak eta ekintzak sozioekonomikoki zehatzak dira, eta hortaz, Lurraldea ulertu/ikuski eta eraldatzeko modu ezberdinen ondorioak pairatzen dituzte lurraldeek. [...] Hainbat paisaia-ikuspegik eraldatu dute lurraldea egungo hiri-bazterreko paisaiaren egoerara iritsi ahal izateko [...]. Gaur egun hiri-bazterren egoera lurraldea ulertzeko eta ikusteko geruza anitzen emaitza denez, etorkizunera begira, hiri-bazterreko izaera osatu ahal izateko horiek nola eraiki diren ulertzea eta lurraldeak dituen berezkitasunak topatzea izan da helburua (Uriarte, 2007: 27).

Horrela adierazita, paisaia-ikuspegiaren tresnak, beraz, lau ikuspegi barnebilduko ditu guztira Uriarteren asmakuntza-saioan: **Ideia**, **Irudikapena**, **Agentzia** eta **Elementuak** (IIAE).

PAISAIA-IKUSPEGIA TRESNA ⇒ **lau dimentsio** ⇒ **Ideia (I.a)**
 ⇒ **Irudikapena (I.b)**
 ⇒ **Agentzia (A)**
 ⇒ **Elementuak (E)**

Autorearen eskema (Uriarte, 2017: 29).

Bat (I.a). Bat... bat, errondan ibili...

Ideiaren bidez lurraldearekiko jarrerak eta jarduerak definitzen omen dira. Normalean gizatalde batek toki-leku bati buruz egin/irudikatu ditzakeen aurrekontzepzioa eta interesa batuko lituzke dimentsio honek, baina horrekin batera lekuak berak (tokiak, espazioak, «paisaiak») aurreirudi humano horri eskaini ahal dionaren araberako ulermenak. Irakurketa instrumentalak, dimentsio honetan, lurraldearen aukerak eta abantailak ez ezik, oztopoak ere neurtzen ditu alderantzizko norabidean. Batik bat hautematean oinarritzen den egitekoa dela defendatuko du Uriartek, objektiboa, subjektiboa edo bien bitartekoa izan daitekeela abisatuz.

Denborak produzitzen dituen adierazleek parte hartuko dute lehendabiziko azterketa honetan, paisaia-ikuspegiaren bilakaera historikoa begien aitzinean izateko intentzioarekin. Osteratxo fisiko erreal geografikoetan zein material historikoetan buruturiko «paseo» metaforikoagoak zilegi litezke, betiere ingurukoaren etengabeko baldintza aldagarriak uztartuz. Paisaietatik «erronda» egitea dugu betekizuna; denborazkoa eta espaziala behinik behin.

Bi (I.b). Bi... bi, ez (ba)naiz ondo ibili...

Gizabanakoak edo gizataldeak bere aitzinean ze(u)tzan lurraldea(k) ikustearekin eta hautematearekin batera interpretatu egiten zituen, jadanik aspaldiko irudien bidez. Erronda egin osteko kontakizun txit grafikoek tokian tokiko miaketa horren ondorengo xehetasunak plazaratzen lagunduko zuten seguruenik. Hala, bada, milaka izan ziren marrazkiez eta margolanaz aparte koordinada sistematikoagoak markatuko zituzten plano eta mapak. Figuratibo zein abstraktuagoak, zailak edo ulerterrazak, argazkilaritzak eta hegazkinak zeresan nabarmena eskuratuko zuten lurraldearen interpretazio modernoan. Lehenagotik ere, «perspektiba optikoaren arauak eragindako paisaiaren irudikapen errealista XIX. menderaino nagusi izan zen. Begiratzeko modu hori, geometriaren garapenarekin bat, esparru militarreko, nabigazioko, lur-neurtze eta topografiaren diziplinak sortu dituen irudikapenekin batera garatu zen (Cosgrove, 2008)» (Uriarte, 2017: 32).

Alabaina, badakigu irudikapenak distantziak ezartzen dituen; eta horiek sarri askotan pertzepzioak berak transformatzen dizkigute, lehendabiziko «erronda» horietan ongi ala gaizki ibili naizen (garen) dagoeneko desitxuratua gelditu arte, lurraldearen etekineterako bederen. Parean, irudikapenak grafikoak baina testu bidezkoak ere izan daitezkeela gogoratuko dugu:

Paisaiaren deskribapenak edota metaforak tradizio luzea baitu literaturan esaterako, giro bat adierazteko, esanahiak iradokitzeke, eta abar. Testuak tokien ezaugarri naturalak deskribatzeko usu erabiltzen dira, direla geologikoak, floristikoak, faunistikoak etab. Maiz, testu horiek mapa eta planoekin batera osatu egiten dira. Gauza bera gertatzen da lurralde-mailako edo hiri-mailako plan batean: testua, mapak eta planoak elkarrekin azaltzen dira, batetik lurraldea deskribatzeko eta irudikatzeke, eta bestetik egitasmoa adierazteke ere. Azpiegitura –edo arkitektura– proiektuetan ere, berdin konbinatzen dira irudizko eta idatzizko adierazpenak (Uriarte, 2017: 32).

Hiru (A). Hiru... hiru, kolkoa bete diru...

Jada irudikatutako paisaia-irudia jendarte-komunitate bati lotzen zaio. Erlazioa, oro har, behatzaile prestuarena (*etic*) edo erabiltzaile-ustiatzaile petoarena izan daiteke, barruti horien barren-barrenekoa (*emic*). Nolabait kontrajarriak, «barnekoek» ez dute izango «paisaia» taxuz lantzen dabilen kontzientzia sendorik; harremanek ez baitituzte ezagutzen konbentzio paisajistikoak, horietatik eskuratzen diren etekinak baino² (hautemate fenomenologikoa). Lurraldearen ulermena aurrekognitiboa izango da nonbait, kontzientzia estetikoaren faltan. Kanpoko begiradak, aldiz, erdigunetik urrundu daitezke «behatoki turistiko bezala», eszenatik at. Kanpoko horiek paisaia bezala hautematen dute lurraldea, barrukoek ordea «paisaia» bera ustiapen-lurralde emankorra balitz lez erabiltzen duten bitartean. Dirua ematen duen «paisaia».

2. Gure oroitzapen berantiarren artean legoke Euskal Herriko pinudiekin gertaturikoa, besteak beste eta labur aipatzearen. Gure mendietan eta batez ere Kantauri isurialdean izan ziren pinudi-landatze itzelak direla medio, geroko gure paisaiaren pertzepzioa sano eraldatua izan da. Halaber, tradizioz jasotako paisaia mitikoen izaera erreala/irreala gure garunean inskribatua geneukalako gertatu zaigu egoera asaldagarria. Pinudiak (edo oraindik are eta txarrago, eukalpto zuhaitzak) landatu zituztenek ez zuten inolaz ere barneratua gure paisaiaren «irudi eraikia»; haientzat duda barik, baso-ustiapenerako produktuak baino ez ziren arbolok, etorkizunerako aberasgarritasun- eta diru-iturri galanta.

Gizarte kapitalistetan erarik arruntenean (ez beti) agentziak kanpotarrak izaten dira, eta eguneroko espazio hiritartua da bizi duguna; distantzia handirik gabe, kontenplaziorako abagune eta zirrikitu ugariarik baga, gizatalde indartsuenek egokitu dituzten kontzeptu ideologikoetan murgilduta, euren erako mundu-mira sustatzeko ezarri diren trazetan zehar.

Lau (E). Lau... lau, sardina bakalao...

Hauek dira zentzu «politikoagoen» erlazioz modelaturiko lurralde-paisaiak, baina besteei lotuak daudenak askatu ezin dezakegun korapilo estuan. Paisaia historiko eta funtzionalak, haien garrantzia erabilera hutsetik ustiapen horiek utzitako maila sinbolikoetara iragazten denean. Bilboko kasuan burdin mendiek eta altzairu goriaren negar-malkoek uretan islaturiko egunsenti gorriak eskaini zizkiguten, baita itsas nabigazioz ernalduriko garraioa eta trukea ere.

Uriartek Bilboren kasuak helburu instrumentala neurri handiagoan duela defendatuko du, deskribatzailearen aldean, eta horrek ere modu batean edo bestean konektatuko du gizakiak lurraldean izan duen influentziatz. Paisaia-ikuspegiak giza eragin horren nagusitasunari helduko dio, paisaiaren ideien sorkuntzan eta definizioan (mendi-itsasokoa, hiritarra...) jarduera eta pentsaera humano horiek nolako arrakasta izatera ailegatu diren erakusteko. Honela, bada:

Paisaia baten esanahi kulturalaren eta identitarioaren naturalizazioaren mugak eta gabeziak identifika daitezke [...] gizarte-botere batek paisaia egokien eta estetikoaren irizpideak sortzeko duen ahalmena ikertuz. Gainera, botererik ez duten gizarte-esparruen paisaia-iruditeriaren ez-ezagutza ere nabarmentzen da ikuspegi-tresnaren bidez, dokumentatu gabe dauden eta komunikabideetan zabaltzen ez diren paisaiak ere existitzen direla ohartaraziz. Eta, hiri-bazterreko paisaien kasuan bereziki, irudikapen kulturalak, mediatikoen eta ekonomikoak (zinea, literatura, kazetaritza, turismoa etab), eta horien interesek, paisaia horien izaera negatiboa eta irudi baztertua osatzen duten eragina azalarazteko ere balio du paisaia-ikuspegia tresnaren bidezko interpretazioak (Uriarte, 2017: 36).

Ikerketa hauen lerro berean eta konstruktibismoaren argi-izpiekin paisaiaren eraikuntza kulturalarekin bat egiten duten hamaika ikerlan burutu izan dira, enfasia lektuze eta adierazle desberdinetan ipiniz: botere-harremanak, ideologiko politikoak, soziokulturalak, paisaia eta irudikapena, egiletza... Materialismo historikoaren angeluetatik enfokatuz ere, gizakiak kulturalki sortua da paisaia, eta «kultura» kategoria horrek oraingoan barnebiltzen ditu eragile soziopolitiko eta ekonomiko oro; paisaia baita ekoizpen-harremanek lurraldea produktiboki tratatzearen ondorioz ahalbidetzen duen begirada, etekin askotariko bilaketa-bidean ereina. Bide horretan usaina dasta daiteke; latza, mingotsa, kresaltsua eta kimikoa, motorren keaz eta koipeaz isuritako zapore garratza. Belarrietan, itsasontzien bozina eta altzairuaren hotsa. Bien bitartean, tximiniari darion fabrika zikinen erraietako hatsa, Bilboko Zorrotzaurre, Erribera eta Olabeagara irizten zen Islandiako bakailaoaren gatza, eta sardina zahar erdi-ustelaren kiratsa.

Edonola ere, Uriartek Bilboaldeko paisaia menditsuetan jartzen du arreta, horiek antza denez, tradiziozko iruditegi kulturallean ez baitira sinbolismoz oso jantziak; alderantziz, Bilboko izaeraren irudikapenetatik zeharo baztertuak izan zirelako argumentua erabiltzen da, geografiak banaturiko «bi paisaia» ezberdinen imajinarioak gailendu zirenean: itsastar hiritartua eta mendi landatarra. Lehena orotan industrialala zen (moderno), eta bigarrenak, aldiz, burdin harrobien oroitzapenak sutan bazituen ere, nekazaritza-abeltzaintza-baserria usadiozko hiruki aldekidetaren giroko pasarteekin kate batzuk tente mantentzen zituen (gizarte aurremoderno).

Bilakaera, arketipoak, eszenak, taulak eta beste...

Edonola ere, Uriartek Bilboaldeko paisaia menditsuetan jartzen du arreta, horiek antza denez, tradiziozko iruditegi kulturallean ez baitira sinbolismoz oso jantziak; alderantziz, Bilboko izaeraren irudikapenetatik zeharo baztertuak izan zirelako argumentua erabiltzen da, geografiak banaturiko «bi paisaia» ezberdinen imajinarioak gailendu zirenean: itsastar hiritartua eta mendi landatarra. Lehena orotan industrialala zen (moderno), eta bigarrenak, aldiz, burdin harrobien oroitzapenak sutan bazituen ere, nekazaritza-abeltzaintza-baserria usadiozko hiruki aldekidetaren giroko pasarteekin kate batzuk tente mantentzen zituen (gizarte aurremoderno).

Edonola ere, Uriartek Bilboaldeko paisaia menditsuetan jartzen du arreta, horiek antza denez, tradiziozko iruditegi kulturallean ez baitira sinbolismoz oso jantziak; alderantziz, Bilboko izaeraren irudikapenetatik zeharo baztertuak izan zirelako argumentua erabiltzen da, geografiak banaturiko «bi paisaia» ezberdinen imajinarioak gailendu zirenean: itsastar hiritartua eta mendi landatarra. Lehena orotan industrialala zen (moderno), eta bigarrenak, aldiz, burdin harrobien oroitzapenak sutan bazituen ere, nekazaritza-abeltzaintza-baserria usadiozko hiruki aldekidetaren giroko pasarteekin kate batzuk tente mantentzen zituen (gizarte aurremoderno).

Edonola ere, Uriartek Bilboaldeko paisaia menditsuetan jartzen du arreta, horiek antza denez, tradiziozko iruditegi kulturallean ez baitira sinbolismoz oso jantziak; alderantziz, Bilboko izaeraren irudikapenetatik zeharo baztertuak izan zirelako argumentua erabiltzen da, geografiak banaturiko «bi paisaia» ezberdinen imajinarioak gailendu zirenean: itsastar hiritartua eta mendi landatarra. Lehena orotan industrialala zen (moderno), eta bigarrenak, aldiz, burdin harrobien oroitzapenak sutan bazituen ere, nekazaritza-abeltzaintza-baserria usadiozko hiruki aldekidetaren giroko pasarteekin kate batzuk tente mantentzen zituen (gizarte aurremoderno).

3. «Neo-baserria, baserri-ereduaren elementu formal batzuk erabiliz eraikitzen den familia bakarreko edo biko arkitektura-pieza pastichea da. Azken 20 urteetan Euskal Herrian izugarri ugaldutako den arkitektura...» (Uriarte, 2017: 51).

zekarrela lepo-sama bezala. Ideial horrekin bat ez zetozen paisaia instrumental eta industrializatuak erabat baztertuko ziren irudizko taula horren paradigmatic.

Bilboko paisaietan eragiten duen bigarren arketipoa itsasadarrarena da. Horrek ondo baino hobeto bereganatu du industriaren, hiri-hazkunderaren eta kutsaduraren errepresentazioa. Mendiak, aldiz, Bilboko «atzealdea» lirateke Uriarterentzat, «Euskal Herri berdea» delakoaren beste paradigma adieraziz, bai fisikoki baita kontzeptualki ere. Atzealde hori, Artxanda izan da sinbolikoki Bilboko hiriko bertoko kasuan eta Serantes mendia, adibidez, hiriaren luzapenak Abrako parajeetarantz ibaiari jarraitzen dionean. Postal gisa antzemandako zona horietan, Bizkaiko zubia bezalako ikonoek nolabaiteko osotasun-izaera eta sentipena aldarrikatzen zuten.

Hirugarren sail baten, hibridoagoa, konnotazio gutxiagoko ikuspuntuekin egiten dugu topo:

Irudi sortaren bilaketa —eta azterketa— prozesuan topatutako hainbat agirik ez dute bat egiten bi sailtako batekin ere; alegia, ez euskal nekazaritza-paisaiarekin ez itsasadar industrialeko Bilboren irudiarekin. Hortaz, beste sail bat osatu da material horrekin. Lan horiek industriaurrekoak dira, eta egungo bi arketipo horien ordeztuak, izaera geografikoaren osotasuna aintzat hartzen duten irudikapenak dira. Beste batzuek, berriz, irudikapen berrien kasuan, arketipo eta dualitate antzu horretatik ihes egiten duten paisaia beste modu batean adieraziz eta erabiliz. Bi kasuetan ez dira mendiaren eta itsasadarraren paisaia bereizten, eta, hortaz, elementu geografiko bakoitzari ez zaio esanahi zehatzik edo hertsirik lotzen (Uriarte, 2017: 64).

Osotara, Uriartek galdegiten dio bere buruari zergatik diren baztertuak hiri ondo-ko mendiak Bilbon. Arrapostua litzateke, alde batetik, euskal paisaia idiliko horren ordezkartze zerikusi urria dutelako, eta, bestetik, hiritik eta industriatik gertuegi egon direlako; hiri-muinoan bertan, Bilboren topografia fisikoa eta irudi sinbolikoa txertatzeko papera ibaiak ondotxo bete baitu. Gainera, meatzaritzak eta abeltzaintzak egindako eraldaketekin balio estetikoetatik kanporatua geldituko zen, hiriarentzat zerbitzu-lurrak izango balira bezala, etorkizunean urbanizatzeko aproposak.

Paisaia-irudikapenaren irakurketa Bilboaldeko lurralde-egituraz jabetzen denean, beraz, deskribapen kuantitatibo/kualitatiboak ager daitezke, baina elementu batzuk edo beste batzuk agerraraziz segun eta lurralde menditsua oztopena balitz bezala kontsideratzen den (mapetako sestra-kurbak kasurako), tradizioaren erroetatik iratzartua den (betiko irudikapen forma klasikoak)⁴, bizilekua den (arkitektura-urbanizazio barreiatua) zein mendi atsegingarri den (orlegia, garbia):

Mendi Tradizionalaren ikuspegian, oro har, mendiko esparrua euskal kulturaren izaerarekin lotzen da, esaterako. Mendi Meatzaritza baliabide ikuspegian, berriz, mendia lur azpiko eta lurrazaleko geruzen formek eta kudeaketak definitzen dute, mendia bere osotasunean sistema oso gisa adierazi gabe. [...] Mendi

4. «Agiriek, gehienbat ikerketa etnografiko, historiko eta geografikoak direnak, paisaiaren balio kulturalaz hitz egiten dute kanpotarraren begiradarekin, hots, lurra landu eta eraiki ez duenaren ikuspegitik, edota elementu tradizional bizitu horiek *in-situ* eraiki zituztenen izenean. [...] Mendi Tradizional eta Mendi Baliabidea lotzen dira basoetan ustiatzen diren ikatza eta eraikuntza-zura aipatzen direnean...» (Uriarte, 2017: 181, 187). Honekin eta burdinarekin batu zuen Julio Caro Barojak Euskal Herriko kultura teknologikoa. Basogintza eta meatze-arauak mendi-baso horren parte baitziren.

atsegingarriagoen kasuan, Berdean, esaterako, elementu onuragarriak eta kaltegarriak bereizten dira. Gainera, mendiaren irudikapena egituratzeko balio moralak, gizatiarrak eta higienistak atxikitzen zaizkio, batik bat, mendizaletasunarekin zerikusia duten dokumentu zaharretan. [...] Irudikapenetik at gelditzen dira, hala nola industria azpiegiturak, bizilekuak, etab. [...]. Mendia Bizileku ikuspegiari bi irudikapen-joera topatu dira: formalaren kasuan, mendiak ebaketen bidez adierazten dira, eraikinak magalean kokatzeko duten moduaren adierazgarri, eta gainera, ikusmira edota eguzkitzapena bezalako ezaugarriak aipatzen dira kokapena adierazteko. Informalaren kasuan, magaletako auzoetako bizi-baldintza eskasak aipatzen dira, [...] eta eragiten duten inpaktu bisual kaltegarria ere nabarmentzen da (Uriarte, 2017: 174-175).

Arestian esanak ditugun *etic* eta *emic* hurbilpenak agenteek lurraldearekin izan ditzaketen hartu-emanetan zedarriz, lehenengoa kanpokoak izango litzateke, balizko egoera ekonomikoek baldintzatua, lurra salerosketa-elementu espekulatibo kapitalista hutsa denean. Bigarrena edo barnekoa laborariena litzateke, besteen artean, paisaiarekin harreman analogikoa eta ohiturazkoa dutenak. Mendia baso-gintzarako ustiatua denean, adibidez, batzuetan harremanok kanpokoak izan daitezke, baina baita estuagoak eta analogikoagoak ere. Halakoa izan zitekeen meatzaritzaren antzinaroetan ere, erlazio estua zuten urtaro-lanak zirenean, sendi artekoak... Aldiz, familia boteretsu handiak lur-jabe egin zirenean, interes ekonomikoek bereganatu zuten nagusitasuna. Tradiziozko mendiaren eszena kontzeptuzko eraikuntzarekin lotzen da, baina denak ere gogor araturiko begiradak dira, abstrakzio eta konbentzioen bidez perfilaturiko plano estetiko, metaforiko eta sinbolikoen pentzuan baloratuak. Dimentsio-gainjartzeak ere egon daitezkeenez, agentziaren eragina funtsezkoa da paisaiaren eraikuntzan, denboran gertatzen den joera-aldakortasunaren zeinuak eskainiz. Bestelako ñabarduren artean, turistaren begirada, azpiegitura bidezko lurraldea saretzearena eta garraiobideena genituzke (paisaia-sarea). Limite/muga tarte horretan kanpoko-barrukotasun geruza-pilaketak askotariko eszena bilakatzen dira eta haien ahalmena oztopen gaintitza da, mendiak bitarteko direlarik errepidez, telekomunikabideen hedagailuz eta ezein zerbitzuz estaliak; bai eta portu-gainak zein bestelako mendixkak ere, sarri askotan giza topagune sozialak ere badirenak. Ñabardura horiek salbu, gizakiak medioarekin izan duen lotura «ekologikoan» ez du agentzien berebiziko elkarlan nabaria sumatu Uriartek Bilboaldeko hiri-bazterreko paisaian; eta horrek, «eraiki duen erabaki independenteen metaketaren ideia indartzen du» (Uriarte, 2017: 183).

Eraikuntza kontzeptual eta diskurtsiboa interseksioen bidez, konstruktiboki, zehaztasunez miatu eta maisutasunez gorputz eman dio Uriartek. Ikerlan burutsuaren lekuko, bibliografia aberatsa eta interpretaziorako halabeharrezkoak diren taula-eskaintza zinez mardula. Dozena bat orrialdetan itsatsiak, ez lirateke liburuaren ilustrazio soilak, baizik eta doktorego-tesiaren metodologia konplexua laburbiltzen, errazten, orrazten, ulergarri egin eta irakurleari gerturazten diotenak. Grafikoen, argazkien eta koadroen presentziak ere «konstruitzen» du ekarpen trebea.

Isusko Vivas Ziarrusta

